



Jendaurrean aurkeztu dute 'Ipuinartean II' proiektua

TOLOSA ▶ 33 artistek hartzen dute parte kulturantzatasuna bultzatzea helburu duen ekimenean

FESTA ▶ Aurkezpenaren ostean, festak Santa Maria plazan jarraitu zuen hainbat artisten saioekin ▶ 6

TOLOSA ▶

Kubako errealitatea gertutik

Filmak ikusgai, aste osoan ▶ 6

LUZ CLEMENTE ▶
KALE HEZITZAILEA



E. MAIZ

«Gizartearen ongizatearen alde egiten dugu lan» ▶ 5



Aranburu Jauregian inauguratu zuten atzo arratsaldean *Ipuinartean II* erakusketa. Eskubiko argazkikoa bezalako lanak daude ikusgai. A. MAIZ

ARESO ▶

Teknologia berriak ezagutzeko

Furgoneta bat joango da datorren astean ▶ 4

ELDUAIN ▶

79 urteko gizon bat hil da mendian

Lau metroko altueratik erorita ▶ 4



“Natura bezain eraginkorra”

TOLOSA MOTOR, S.A.
San Esteban auzoa, 14-A
20400 Tolosa (Gipuzkoa)
Tel.: **943 65 03 37** Faxa: **943 65 29 38**
tolosa@tolosa.redpeugeot.com

PEUGEOT 308 berria



www.saldias-miguel.com
SM Saldías Miguel
ASEGURUETAKO ARTEKARITZA

% 60 arteko aurrezkia zure ibilgailuaren aseguruan

Iturrioz kalea, 14 • BEASAIN
Tel.: 943 085 600 • Faxa: 943 085 400
Nafarroa Etorbidea, 12 beheka • 20400 Tolosa
Tel. 943 651 189 • Faxa: 943 653 462
San Juan kalea, 6 • ANOETA
Tel.: 943 698 004 • Faxa: 943 653 462

UZTURRETIK ▶ JOXI IMAZ



Oporrak eta politika

Begoña Ameztok esan arren udara ondoren oporrei buruz idaztea burgesen kontuak direla, horixe egitea pentsatzen nuen, ziurrenik burges batzuk garelako gutako asko (batzuk gehixeago, besteak gutxiago). Baina azken egunetan gertatutakoen ondoren, uste dut politikari buruz ere zerbait esan beharko dudala. Oporrei buruz pentsatuta neukan artikulua honela hasten zen:

«Pasa da udara. Aparkatu dut auto-karabana Maxi-Eroskiko aparkalekuan. Baina zalantzarik beteta nago, esan baiti-

date oporretan normalean jendeak nahi duena dela patxada bilatu, eta horretarako ez dagoela urrutira joan beharrik. Patxada, jakituria, eta horrelako gauza inportanteak azken batean norberak bere barruan bilatu behar omen dituelako. Udara hasieran Pako Aristik honela esplikatu zuen ideia hau: 'Egunotan taberna batean egoten bazara, isilik eta jendearen elkarrizketak entzuten, mundu osoko lekuen izenak entzungo dituzu haien ahotan: bata Punta Canara doa, bestea Italiara, edo Brasilerara, eta baita Txinara ere. Ni zain egoten naiz, ea norbaiti esaldi interesgarriren bat entzuten

diodan bere bizitzari buruz, baina ez; mundu guztiak foiltole turistiko bat balitz bezala hitz egiten du'. Itxaro Bordak ere honi buruzko hausnarketa polita idatzi du: 'Irri gutizia sortu diit udak. Tristatze-ko astirik ez dut ukan: pastelak jan ditut, kafe beltzak eta gin-tonic hotzak edan, eta Baionako bestetan Miarritzeko ikastolako gurasoek prestatutako txipiroiak dastatu. Zer gehiago behar da zoriontsu izateko? B. Brechen olerki labur bat. Almodovarren *Volver* hirugarrenez. As-katasun hurbilaren esperantza giltzapetan daudenentzat' (2006ko uda zen, su etena eta negoziatioena)».

Itxaro Bordaren ideia erabiliz, nik ere horrelako zerbait egin nahi nuen: «Ikusi ditut *Enmaren zortea*, *Caotica Ana* eta Leonard Cohenen *I'm your man*. Irakurri dut *V-Vendetta* komikia eta *Zakur kale* liburua. Ikusi dut nire semea jaio-tzen, eta bere bizitzako lehenengo bi hilabeteak betetzen... Zer gehiago behar da zoriontsu izateko?»

Baina behar da bai zerbait gehiago erabat zoriontsu bizitzeko. Gizakia taldean bizi den animalia da, eta guri ez digute utzi nahi aukeratu dugun taldean lasai bizitzen. Ez dute onartu nahi euskaldun sentitzen garela. Gure esku dago ideia horren alde borrokatu, edo gure etxean gure telebistarekin ezkutatu eta eroso bizi, ezer gertatuko ez balitz bezala.

ASTEKO IRUDIA ▶



ESTI EZEIZA



Inauguratu dute Samaniego ikastetxeko eraikin berria

Erredakzioa ▶ Astelehenean inauguratu zuten «ingurumena zaintzen duen» Samaniego ikastetxeko eraikin berria. Ekitaldian izan ziren Ingurumen eta Lurralde Antolamenduko sailburu den Esther Larrañaga, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa

sailburua Tontxu Campos, Tolosako alkatea Jokin Bildarratz, Onintza Lasa eta Oscar Renedo zinegotziak, Samaniego LHiko zuzendaria Itziar Etxeberria eta Samaniego LHiko Guraso Elkarteko lehendakaria Xabier Maiza. ESTI EZEIZA

HILBERRIAK - URTEURRENAK - ESKERTZAK

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarri eta Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN agertuko da

HITZAK GIPUZKOAN 120.000 IRAKURLE

ESKELAK • 19:00ak arte hartzen dira
tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info
Tel.: 943 65 56 95



KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

LIZARTZA ▶ POLITIKA

N. URBIZU - I. TERRADILLOS

Lizartzako paisaia berriak

PPren Belaunaldi Berrietako kideen bisita izan zuten aste honetan Lizartzan; Regina Otaola herriko alkatea alboan zutela kanpaina baten berri eman zuten

Eguerdiko kanpai hotsak entzuteko ordu laurden geratzen denean hasi da zurrunbiloa Lizartzako plazan. Kazetariak, argazkilaria, kamerak, ertzainak, bizkartzainak... Pertsonai ezagunen bat egongo da bertan...

«Ziur aktore edota musikari famatu bat dela!», pentsatuko luke norbaitek. Azken hauteskundeetan 27 boto lortuta (581 biztanleko herria da), Lizartzako alkate kargua hartu duen emakumea da. [«Hain gutxi eman al zuten bozka? Ez, beste alderdi batek askoz ere boto gehiago izan zituen. Eta orduan? Legez kanpo utzi zuten», gaiari buruz ezer ez dakien eta jakitun denaren arteko gutxi gorabeherako elkarrietzeta]. Demokraziari esker eta Lizartzako herritarrek aukeratuta dagoela leku horretan etengabe bozgorailuz zabal-tzen duen Regina Otaola da.

Ez dago bakarrik Otaola anderea. Berarekin dira Partido Popularreko kideak, eta kasu zehatz honetan Madrildik kanpaina baten berri ematera etorri diren PPren gazteak. Alderdikideak ezezik, Regina Otaolak kazetarien artean adiskide ugari dituela ere nabari da. Madrildo komunikabideetako kazetariak dira hauek. Gustura daude. Zirrarez beterik eta urduri: «Bizitzako albisterik garrantzitsuenaren bila noa gaur!», esan diotela goizean amari etxetik atera aurretik dirudi. Ez dira denak Madrildioak, badira tartean euskaldunak ere eta hauek harriduraz aztertzen dute egoera: «Bene-tan Lizartzan al gaude?».

Emanaldia hastera doa

Bat batean ordura arte udal-tertxeko arkupeetan Ertzaintza-zaren zaintzan (edo gainerakoak ari ziren kontrolatzen?) zeuden Regina Otaola eta bere kide gaztetxoak plazara irten dira, udal-tertxearen aurrera.

Argazkiak ateratzeko uinea da. Argazkilariek eraman dituzte leku egokira, udal-tertxe-



Miguel Angel Fernandez ezkerrean, Regina Otaola erdian, eta Nacho Uriarte eskuinean. I.T.

zintzilik dauden banderen azpira, alegia. Horrela, Otaola eta PPren gazteak Espainiako banderarekin batera atera daitezke. Ez dago Espainiako bakarrik, ikurrina eta Lizartzakoa alboan ditu. Deigarria Espainiako hiltzen duen makilak puntan lauburu duela. Deigarria ere, Espainiako komunikabide ezagun bateko argazkilaria honen inguruan bost minutu lehenago esandakoa, iritsi berritan, lankideak agurtzen zituen bitartean: «Por fin, la banderita hondeando en el ayuntamiento! Es genial!». Haren aurpegian poza eta lorpena islatzen ziren.

Urduritasuna, argazki hobea nork atera, plano onena lortu... Tira! Orain udal-tertxeko pleno aretorea, prentsaurreko zirrara-garrira. Berrito urduritasuna, «azkar, mugil leku ona hartu behar da eta! Ez ahaztu bizitzako albisterik garrantzitsuenaren eman behar dugula!». Gustura doaz kazetariak eta PPkoak, barrezka, lagunarteko giroa antzematen da; euren artean komentario inozoak egiten, po-

zik: «Regina, por favor, ¿posaras para la foto?», galdetzen dio Madrildo argazkilaria. «Hombre, ¡faltaria plus!» erantzuten dio Otaolak, eurentzat heroia den emakumeak.

«Urriaren 12a ospatzer!»

Udal-tertxeko pleno aretorea iritsi gara, bertan *Somos España* kanpaina aurkezteko behar baitute. Zergatik aukeratu duten Lizartza? «Regina Otaolaren balentria eta adorea eredugarri direlako». Hori esan du behintzat, artaziaz oso markaturiko orrazkera berezi horietakoa duen Nacho Uriartek, PPren Belaunaldi Berrietako lehendakariak. Mahaian eseri dira bi gazte eta emakume bat, eta atzean beste hiru gazte eta gizon heldu bat. Orkestra buru Otaola anderea.

Bost minutuz flashen argiek hartu dute areto nagusia. Beterik dago. PPkoak 8 bat, eta kazetariak, kamerak eta argazkilaria 16 inguru. Atean ertzainak eta bizkartzainak. Gela beteta, beraz. Hitz egiten hasi

dira mahaian eserita daude-nak. Miguel Angel Fernandez Lizartzako Udaleko zinegotziak esan ditu lehen hitzak. Bertaratzeagatik eskerrak eman ondoren urriaren 12a, hau da, Hispanitatearen Eguna «alaitasunez eta harrotasunez» ospatzeko gonbita egiten du. EAE-ANV eta EHAK alderdiak legez kanpo uzteko deia ere egiten du, «ez baitugu su-etetik onartzen, porrotaren bide-baita jarraitu behar dena».

Nacho Uriartek hartzen du hitza orain, eta Bilboko atentatua gaitzetsi ostean, guztiek Otaola erudutzat izan beharko genukeela adierazten du. Herritar guztiok Madrileria joatea nahi du Uriartek. «Egun horretan, erregearekin, Raxoiekin, eta ondoren, Zapaterorekin egoteko, nola ez harrotasun osoz».

«Lizartza Espainia da»

Iritsi da azkenean. Regina Otaolaren txanda da. «Bilboko atentatua gaitzetsi du EAJK, baina, berriz ere, Batasunaren

bizkarrak babestu ditu, eta ez du onartu nahi ETA eta Batasuna gauza bera direla», dio. Une horretan Madrildo kazetari bategi keinuua egin du Otaolak esan berri duena baieztatuz, «Zer beste izan daiteke, ba?» pentsatuko balu bezala. «Espainiolak sentitzen gara, eta geure ikurrak normaltasunez defendatu behar ditugu: ikurrina eta Espainiako bandera nazionala defendatuko ditugu. Lizartza Espainia da», adierazi du Otaolak.


Kanpainako kartela aurkezteko unean, Regina Otaolak zera bota du: «¡Y para que nadie diga que esto no es España!». Izan ere, beraren ustez, «ezin da ulertu Espainia Euskal Herririk gabe, Euskal Herririk gabeko Espainia ulertzen ez den moduan».

Bukatu da gaurkoa, edo bukatzeaz dago behintzat. Bandera ikusteaz asko poztu zen Madrildo argazkilaria hartuko du protagonismoa ondoren. «¡Ahora todos a empapelar el pueblo con el cartel!», esan du ahoan irribarre batekin, kontuan hartu gabe (edo hartuta?) 581 biztanle dituen herri hau iraindu dezakeela; galdetu bestela herritarrei, edo ikusi besterik ez du udal-tertxearen ondoko etxebizitzetan dauden ikur euskaldunak (ja leño guztietan ageri dira ikurriñak eta *Euskal Presoak Euskal Herrira* dioten banderolak).

Bukatu da. Denak udal-tertxetik kanpora. Une horretan umetxoak eskolatik etxera doaz. Hain ohiko bilakatzen ari den paisaia zeharkatu behar dute, armaturik dauden ertzainak eta bizkartzainak osatzen dutena. Zirko honen guztiaren biktima handienak dira txiki hauek, gainerako herritarrekin batera. Hautatzen bizitzak aurrera jarraitzen du.

hitza

Harpidedunen txokoa



aspepelota.com

Larralde - Cabrerizo

MTZ. DE IRUJO – NALDA III
OLAZABAL - BARRIOLA

Uriarte – Arizmendi
Apezetxea – Galarza VI

HITZAKO harpidedunen artean Astelehenean, Urriak 15, **16:30**ean **Beotibar pilotalekuan** jokatuko diren pilota partidetarako bi sarrera pare zozketatu ditugu eta honako hauek dira irabazleak:

- ▶ 28229 Aritz Larreta (Amezketeta)
- ▶ 11890 Maria Luisa Aranzazpi (Anoeta)

sarrerak lehiatilan bertan izango dituzue

zozketan parte hartzeko beharrezkoa da harpidedun ordaintzailea izatea

ARESOS ▶ GIZARTEA

Teknologia berriak ezagutzeko aukera, datorren astean

Lau ordenagailu dituen furgoneta bat herrian izanen da datorren asteazkenean, teknologia berriak ezagutarazteko



Areson ia erabatean 15 ordenagailu sarera konektatuta daudela azaldu du Mikel Baraibar alkateak. J. ASTIBIA

NAIARA GARZIA

Datorren asteazkenean Nafarroako Gobernuak antolatuta lau ordenagailu izanen dituen furgoneta bat hurbilduko da

Aresora eta 6 ordu ematen ditu bertan, 10:00etatik 14:00etara eta 15:30etik 17:30era.

Urriaren 1ean jarri zen martxan proiektu hau eta azarora-

ren 30era arte furgoneta honek Nafarroa zeharkatuko du goitik behera. Proiektu honen helburua teknologia berriak ezagutaraztea da, Internet eta helbide elektronikoa, eta bere-

ziki hirugarren adineko jende-ari eta emakumeei zuzenduta dagoela adierazi du Cederna-Garalurreko Elena Irigoienek.

Furgoneta honetara hurbiltzen direnek ez dute ezer ordaindu beharko eta adituen laguntza izanen dute, zalantzak argitzeko.

Wi-fi konexioa Areson

Areson wi-fi konexioa jartzari dira eta Mikel Baraibar alkateak azaldu duenez, «orain azkeneko etxeetan lanean ari dira. Sare bat jarri dugu herri guztia sartzeko, eta honela Internet herri guztian zabalteko». Wi-fia herri osoan jartzeko erabakia behar batengatik hartu zutela adierazi du Baraibarrek. «Oinarritzko linea baze- goen, baina ez zebilen batere ongi eta ADSL kontratatu nahi zutenek ere ezin zuten».

Gauzak honela, etxe bakoitzean instalazio txiki bat egin behar zenez, jendeak izena emateko deialdia zabaldu zuten. «Nik uste baino jende gehiagok izena eman zuen. Erabat harrituta gelditu ginen. Gaur egun Areson ia etxe guztietan ordenagailu bat badagoela iruditzen zait», dio Baraibarrek. «Wi-fi sistemara konektatuta erabat 15 lagun inguru izaten dira. Jendeak erabiltzen du. Azken batean 70-80 etxe gara Areson. Honen arabera %20a beti konektatuta dago, bestela bideratzailea piztuta daukatela ere izan daiteke».

Helduentzako ikastaroa

Datorren asteazkenean etorriko den furgonetak gizarte- teknologiarekin harreman guxien duten sektoreei zuzenduta dago, Iruñeatik abiatu zen eta Erronkari eta Zaraitzu bailarak zeharkatu ondoren iritsi-ko da Aresora.

LEITZA ▶

Doneztebe eta Leitza arteko errepidea 6 egunez itxirik

Errepidea hilaren 17an, 18an eta 19an, goizez, itxi egingo dutela jakinarazi dute

N. GARZIA

Lanak egiten ari dira Leitza eta Doneztebe arteko errepidean. Hori dela eta, itxirik egon da aste honetan eta datorren astean ere itxiko dute, hilaren 17an, 18an eta 19an, hain zuzen ere, 09:00etatik 13:00etara.

NA-170 errepidea da Leitza eta Doneztebe elkartzen dituen, eta konponketa lanak direla-eta 2 puntutan moztuko dute: 16,300 kilometroan, hau da, Eratsungo bidegurutzean, eta 19,200 kilometroan, Lotzabian eta Sal- dias artean.

ELDUAIN ▶

79 urteko gizonezko bat hil da mendian erori ostean

Azketa mendian lau metroko altueratik erori eta bertan hil zen Hernaniko gizonezkoa

N. GARZIA

79 urteko gizonezko bat hil zen atzo eguerdian Elduain- go Azketa mendian, hiru edo lau metroko altueratik erori ostean. Eusko Jaurkitzaren Herrizaingo Sailak jakitera eman zuenez une horretan familiako hainbat kideekin zegoen hernaniarra ehiza postu batean. Ertzaintzaren eta Osakidetzaren helikopteroak ezbeharra gertatu zen lekura joan ziren istripuaren ondoren, baina ezin izan zuten ezer egin, iritsi zirenera-ko hilik baitzegoen gizonez-koa.

Medikuak 79 urteko gizo- nezko hernaniarra hilik ze- goela baieztatu ondoren Do- nostiako Miramonen dagoen Patologia zerbitzuetara era- man zuten gorpua helikopte- roz.

GIZARTEA ▶

Enpresa bat behar bezala kudeatzen ikastea helburu duen ikastaroa hasiko da hilaren 23an

Izena emateko epea zabalik dago eta gehienera 20 pertsonen parte hartu ahalko dute

N. GARZIA

Cederna-Garalurrek antolatuta enpresa kudeatzen ikasteko ikastaroa egingen dute urriaren 23tik aurrera, Lekunberrin.

Ikastaroa erabat praktikoa da eta enpresa bat duen edo- nori zuzendua dago, enpresa baten kudeaketa erakustea

baitu helburu. Horretarako ikastaroa lau arlo ezberdine- tan banatu dute: kontabilitate- a, finantza-kudeaketa, fiskali- tatea eta lan-kudeaketa.

Kontabilitateari dagokionez, besteak beste, eskaerak, emate- agiriak, fakturak eta horre- lakoak aztertuko dituzte, baita balantzeak ere.

Finantza-kudeaketaren arlo- an, kobratu eta ordaintzeko ba- liabideak, maileguak, kreditore- ak, leasing-ak, renting-ak izan- nen dituzte ikasgai, baita bankuekin sortzen diren ha- rremanak ere.

Fiskalitatean, besteak beste, negozio mota ezberdinak az- tertuko dituzte eta lan-kudea-

ketan, soldata-orriak, kontrata- zioak, gizarte-segurantzak...

Ikastaroa Lekunberriko uda- letxean ematen dute, urriaren 23tik azaroren 8ra, 19:00eta- tik 22:00etara, 60 euro balio- ditu eta gehienera 20 pertso- nek parte hartu ahalko dute. Izena emateko 948 56 70 10 zenbakira dei daiteke.

LUZ CLEMENTE ▶ KALE HEZITZAILEA



E.MAIZ

«Gure helburua komunitatearen ongizatearentzat lan egitea da»

Tolosan duela hamabi urtetatik ari dira lanean kale hezitzaileak, tartean Luz Clemente; «behar gehien duten nerabeei» laguntzen diete

ENERITZ MAIZ

Tolosako Udalak Gizarte Zerbitzuak dituen bulegoan aritzen dira lanean. Kale hezitzaile lanetan hiru lagun aritzen badira ere, gaur, Luz Clementerekin (Lasarte, 1971) elkartu gara elkarrizketa hau egiteko. Bere lankide Andoni Duran eta Estitxu Arnaizek lana dela eta, ezin izan dute elkarrizketara etorri. **Ez dakien batentzat, zer da kale hezitzailea izatea?**

Gu gizarte hezitzaileak gara eta gizarte zerbitzuetakoekin batera aritzen gara elkarlanean. Gizarte zerbitzuak arlo ezberdinetan banatuta daude eta gure helburua komunitatearen ongizatearentzat lan egitea da. Egia da, guk gehien behar dutenei laguntzen diegula. Gizarte nola dagoen kontuan izanda, gu zailtasunak dituztenekin aritzen gara; ballabide, koadrila, lagun edota familiaren laguntzarik ez dutenekin eta euren kabuz aurrera egiteko gai

ez direnekin. Gizarte hezitzaile bezala programa ezberdin askotan lan egin daiteke. Guk kale hezitzaile bezala, egoitzan gela bat badugu ere, jendea dagoen lekura joanez egiten dugu lan. Honek ez du esan nahi kalean bizi diren pertsonak diren. Hiri handietan badaude kasu horietarako programak baina gurea ez da hau. **Gazteekin bakarrik egiten duzue lan?**

Guk lantzen dugun programan, nerabezeroan dauden gazteak aurkitzen dira, hau da, hamabi urtetik hemezortzi urte bitartekoak. Baina badira kasuak urte gehiagotara ere luzatzen direnak. Gaztetxoagoak ere hartzen ditugu kasu berezietan eta baita helduagoak ere. Adibidez, lau urte berarekin lanean aritu eta laguntza eske etortzean, ezin diozu ezetz esan. Beste batzuk, lana bilatu nahi dutelako edo beste edozertarako datoz guregana. Gaztetxoenekin, Berazubini dugun lokal batean elkartzen gara eta etxeko lanak egiten laguntzen diegu.

Nolakoa da zuen egun bat?

Goizetan, lan gehiena koordinatzen eta gestioak egiten pasatzen dugu. Gizarte zerbitzuetako langileekin batera gure laneko helburuak zehazten ditugu. Ikastetxeekin ere bilerak egiten ditugu eta hau oso positiboa da, lana denok batera egiten dugulako. Gaztetxoekin dituzten arazoak, beste begi batzuekin ikusten laguntzen diegu eta errealitate ezberdinetara egokitzen laguntzen diegu beraiek haur asko dituztelako. Etapa batzuetan kalera ere ateratzen gara beraiekin ekintza ezberdinak egiteko. Leku ezberdinetan elkartzen gara: kiroldegia, gazteek dituzten lokaletan eta kalean ere egoten gara. Bestalde, urtean zehar, beste herri batzuetako hezitzaileekin elkartzen gara torneo alternatiboak antolatzeko.

Eta zer gauza antolatzen dituzue beste herrieekin?

Gazte horietako askok, ezin dute federatu edota eskolaz kanpoko ekintzetan parte hartu. Ez da gai ez direlako, baizik

eta, kosta egiten zaielako egunerokotasunean joan eta entrenatzea. Hau dela eta, inguruko herrietako hezitzaileekin batera, futbol edota saskibaloitxapelketak antolatzen ditugu. Baita, bestelako lehiaketak ere. Esate baterako, ekainean, Gazte Forum lehiaketan parte hartu genuan bideoklip batekin eta irabaztea lortu genuen.

Noiz edo nola sortu zen laguntza hau emateko beharra?

Pixka bat korapilatsua da. Programa hau heziketa osagarri bezala sortu zen. Kontsorzio alternatibo bat egin zuten departamentua ere ez dena, normaletik kanpo zeuden programak garatzeko. Garai haietan, eskola-porrota ez zen ematen gai ez zirelako baizik eta, ikasketarako edo beraien formakuntzarako motibaziorik ez zutelako eta osagarriko edo osabidezko heziketa hau planteatzen hasi ziren gizarte arlotik. Lehen programa duela hemezortzi urte hasi zen Gipuzkoan eta gero gainontzeko lekuetara garatu zen. Momentu honetan, Gipuz-

KALE HEZITZAILEAK

«Gizarte zerbitzuak arlo ezberdinetan banatuta daude eta kale hezitzaileena horietako bat da»

NERABEZAROA

«Gehien bat nerabeekin egiten dugu lan baina gaztetxoago eta helduagoei ere laguntzen diegu»

KALEA

«Bulegoa badugu ere, gazteak dauden lekura joanez egiten dugu lan. Honek ez du esan nahi kalean bizi diren»

koan hogeita hamarretik gora herritan dago martxan.

Ongi hartzen zaituztete laguntzera joaten zareten koadrilek?

Jada hamabi urte pasa dira hasi ginenetik eta gauzak asko aldatu dira, ezberdina da. Orain gazteak beraiek dira gure bila datozenak. Badakite beraien anai edo arrea zaharrek edo lagun helduagoekin egonak garena eta batera eta bestera joaten ginela eta gustuko dute. Bestalde, badaude gazte batzuk, beraiekin harremanetan hastea zailagoa dela, hasieran ez baikara beraien bizitzaren parte. Gazteak oso azkarrak dira eta gure artean ere aukeraketa egiten dute badakitelako gutako batekin ongi moldatuko direla eta benetan, behar dutenean lagunduko diegula. Nahiz eta sarritan ez jakin, benetan behar gaituztela.

Urte osoko lana da zuea edo ikasturteka egiten duzue?

Urte osoko lana da gurea, ez du zerikusirik eskolarekin. Udaran itereak egiten ditugu gaztetxoekin eta jarduera asko, edozein umek egiten dituen moduan. Eta gu ere beraiekin joaten gara.

Hiru lagun artean egiten duzue lana, ezta?

Bai, hiru gara Estitxu Arnaiz, Andoni Duran eta ni. Gizarte zerbitzuetakoekin batera, talde bat gara baina kale hezitzaileak gu hirurok gara. Goizetan elkarrekin egiten dugu lana eta arratsaldetan normalean bina-ka ateratzen gara kalera.

Urte hauetan egindako lanarekin gustura zaudete?

Bai, gustura gaudete egiten dugunarekin eta beraiek gu erreferente bezala hartzearekin.

GIZARTEA ▶

Kubari buruzko filmak
Kultur Etxean ikusgai

Film laburrak eta luzeak ostegunera arte ikusi ahalko dira, 20:00etan, dohainik



Barrio Cuba filma. HITZA

ERREDAKZIOA

Kiroletako eta Kanpo Ekintza-ko departamentuak eta Mugarik Gabe erakundeak sinatu duten akordioaren arabera, Garapenera Gobernu Kanpo-ko erakunde horrek sentiberatasun zinema zikloa antolatu du Gipuzkoako zenbait herrietan zehar. Edizio honetan, eta Kuba ardatz izanik, Tolosan, Mutrikun, Seguran, Zumarragan, Azpeitian eta Elgoibarren hainbat film labur zein luze ikusi ahal izango dira, beti ere, «gipuzkoarrek kontzientzia kritiko handiagoa har dezaten munduko beste herri batzuetan zehar jasaten diren giza eskubideen urraketan inguruan eta, aldi berean, egoera aldatzeko parte hartu dezaten».

Juana Mari Astigarraga Giza Eskubideetarako, Kooperazio-

rako eta Berdintsunerako zuzendari nagusiak azpimarratu duenez, «Mugarik Gabe erakundearen helburuekin gutuz bat gatoz. Gure departamentuaren baitan dagoen lankidetzarako eta Giza Eskubideetarako Zuzendaritza Nagusiak dituen ildo nagusiak sentiberatze programak, lankidetzara eta giza eskubideak dira eta, argi dago, Zinema eta Kooperazio emanaldi honekin balore horiek indartuko ditugula». Mugarik Gabe erakundeak esperientzia luzea dauka ikus-entzunezko teknikak erabiltzen hainbat balore sustatzeko, hala nola, gizartearen parte-hartzea, salaketa eta elkartasuna.

Lehen emanaldia Tolosan egingo dute astelehenean eta Elgoibarko Kultur Etxean amaituko da ekimena azaroaren 16an.

Filmak, Tolosan

Saioak 20:00etan izanen dira, Tolosako Kultur Etxean, eta sarrerek doan izango dira. Hauek dira ikusi ahalko diren filmak: astelehenean bi film, *Montaña de Luz* eta *La chivichana*, asteartean, hiru, *Rasgando Velos*, *Video de familia* eta *Sueño de mujeres*; asteazkenean, bost, *Jose Manuel*, *la mula y el televisor*, *Gotica a gotica*, *Al compás del pilón*, *Fidel*, *el hombre de las cucharitas* eta *Casas en la pantalla*, eta ostegunean *Barrio Cuba* pelikula.

KULTURA ▶

Aranburu Jauregia,
kulturaniztasunaz blai

‘Ipuinartean II’ kulturaniztasuna bultzatzea helburu duen erakusketa eta liburua aurkeztu zituzten atzo arratsaldean



Jende ugari bildu zen atzo Aranburu Jauregian inaugurazio ekitaldian. ASIER IMAZ

NAIARA GARZIA

Atzo 19:00etan, Aranburu Jauregian *Ipuinartean II* erakusketaren eta liburua aurkezpena egin zuten. Gauean Santa Maria Plazan jarraitu zuen festak Alurr dantza taldearekin, Mulambo batukada taldearekin, zuzeneko pinturarekin (proiektu honetako artistek parte hartu zuten) eta Paula Flemming Djaren mundu-musikarekin.

Erakusketan artisten lanak eta hauek inspiratu dituzten ipuinak ikus daitezke, jatorrizko hizkuntzan, euskaraz eta gaztelaniaz. Orotara erakusketan 33 artistek parte hartu

dute. Liburuan, aldiz, 29 testu, ipuin eta kondaira aukeratu dituzte, eta testuek inspiratutako obren argazkiak Antonio Di Bellonio artistak egin ditu.

Bigarren edizio honek badu berrikuntzarik, izan ere aurtur proiektu hau Frantziako hainbat aretotan ikusi ahalko da. Ereite Elkarte Multikulturalak Hendaiaiko Les Faiseurs de la Belle elkarrekin sinatutako hitzarmen bat dela medio. Bestalde, aurtur artista parte-hartzaileetatik bik, Eduardo Manet eta Nicolas Mezzalira idazleak, hain zuzen, testu bana eman dute: Manetek bere kubatar haurtzaroan oinarritutako kontakizuna eta

Mezzalirak, berak idatzitako ipuin baten zatia.

Ekimen honen bitartez, kultura ezberdinetako artisten arteko harremanak bultzatzea gain, gizarteari gogoeta egiteko aukera eman nahi diote, kultura aniztasunaren aberastunaren inguruan. «Mendebaldeko gizarteetan jaio eta hezitako pertsonen artean bada Artea eta Kultura maizkulaz, geureak direla pentsatzeko joera, gainontzekoek *artisautzara* eta *folklore*a dituztelakoan», diote antolatzaileek. «Jolasean bezala, modu dibertigarri eta inkontzientean, esteerotiop hauek apurtzea dugu helburu».

IPUINARTEAN II ▶ KULTURANIZTASUNA BULTZATZEKO EKIMENA

ARTISTA GUZTIAK

Bruno Aguerre. Hendaia.
Iñigo Altolagirre. Donostia.
Patricia Ayala. Asuncion, Paraguay.
Roberto Ayala. Asuncion, Paraguay.
Alfredo Bikondoa. Donostia.
Xavier Carrère. Draguignan, Frantzia.
Martina Dasnoy. Brusela.
Antonio Di Bellonio. Casalnuovo di Napoli, Napoli, Italia.
Laurent Dufrière. Donibane Lohitzune.
Gonzalo Etxebarria. Bilbo.

Gustavo Diaz Sosa. Sagua la Grande, Kuba.
Susana Garcia. Tolosa.
Juan Luis Goenaga. Donostia
Nisa Goiburua. Ordizia.
Don Herbert. Detroit, AEB.
Jean Luc Labat. Hagetmau, Frantzia.
Alberto Letamendi. Ordizia.
Papin Lucadamo. Buenos Aires, Argentina.
Hector Luna. Quito, Ekuador.
Eduardo Manet. Santiago, Kuba.
Julio Matilla. Camaguey, Kuba.
Jose Luis Zumeta. Usurbil.

Margarita Saad. Montevideo, Frantzia eta Uruguaykoa.
Hugh Mc Arthy. Dublin, Irlanda.
Angela Mejias. Valdelacalzada, Extremadura.
Nicolas Mezzalira. Guérande, Britainia.
Txitxi Orbeago. Tolosa.
Toni D. Pajaro. Manila, Filipinak.
Juan Pablo Rulfo. Mexiko,
Fatima Soualhia. Nancy, Frantzia eta Argelia.
Aurelio Bizente. Tolosa,
Zigor. Aretxabaleta,
Tanja Wielebeke. Finlandia.

Benito Lertxundi
TOLOSA
urriak
20
larunbata
20:00
LEZOR

CLASICO CONCERTS
943 00 13 00
www.klasicos.net

KIROLA ▶

Adiskidetasunaren Txapelketa gaur erabakiko dute

12:00etan jokatuko dute finala; aurretik, hirugarren eta laugarren postuak 10:30ean jokatuko dituzte, Usabalen



Andaluzia eta Galiziako jokalariek elkarri eskua emanaz finalerdietako bigarren partidan. ASIER IMAZ

ASIER IMAZ

Areto futbola aitzakitzat hartuta, Peña Blaugrana Tolosarrak Adiskidetasunaren Txapelketa antolatu du Usabal Kiroldegian. Jada bi egun igaro dira Txapelketa hasi zenetik; hiru eguneko kirol jardunaldiak izanik, gaur jokatuko dituzte finala eta hirugarren eta laugarren postuak erabakita utziko dituen partiduetan.

Atzokoan final-laurdenak eta finalerdia jokatu zituzten goizean goizetik. 17:00etarako, 12 herrialde partaidetarik, lau bakarrak geratzen ziren lehian. Lehenik Euskal Herriak eta Extremadurak jokatu zuten lehen finalerdia. Partida bikaina izan zen, bi taldeak parekotasun handia erakutsi baitzuten. Azken emaitzak bikain isladatu zuten partiduen nondik norakoa, 4 eta 4 amaitu baitzuten. Penaltietan, Euskal Herriak lortu zuen finalerako txartela.

Bigarren finalerdia Galizia eta Andaluziak jokatu zuten. Azken hauek 0-7 irabazi zuten euren nagusitasuna erakutsiz.

Gaur finala 12:00etan

Adiskidetasun Txapelketaren irabazlea eta lehen laurak nortzuk izan diren, gaur erabakiko da. Lehen partida, 10:30ean jokatuko dute. Bertan Extrema-



Euskal Herriaren aurka, Pakistaneko bi jokalarik falta jautzeaz. A. IMAZ

dura eta Galiziaren artean, hiru eta laugarren postuak erabakiko dira.

«Final handia», 12:00etan jokatuko da, nahiz eta atzo egun-kari honetan 18:30ean jokatuko zela azaldu. Azken partida honetan, Euskal Herria eta Andaluziaren arteko erronka ikusteko aukera egongo da Usabal kiroldegian. Ondoren,

partaide, antolatzaile eta laguntzaileek bazkaria egingo dute, Adiskidetasun Txapelketa ondorena izan dezan futbol zelaitik kanpo. Bertan izango dira Euskal Herria, Palestina, Herrialde Katalanak, Galizia, Pakistan, Ukraina, Extremadura, Ekuador, Senegal, Andaluzia, Espanza Latina eta Marokoko ordezkariek.

AZOKA ▶



Perretxikoez merkatuko izar izaten jarraitzen dute oraindik. P. ALBERDI

Udazkenean basoko produktuak nagusi

Mugimendu gutxi ikusi zen atzokoan, Santu Guztien Egunezko lore eskaintzen zain

PABLO ALBERDI

Gris koloreko goiz batean, egutegia aurrera doan heinean bi gauza ikusi daitezke, tenperaturaren beherakada eta udazkeneko produktu tipikoen eskaintza Tolosako Azokan.

Orain dela bi aste lehen gaitainak eta urrak ikusi genituela aipatzen bagenuen, atzokoan mahai guztietan ikusteko aukera izan genuen.

Hala eta guztiz ere, perretxikoez jarraitzen dute Azokako izar izaten. 300 kilo ontto inguru 10 eta 25 euro arteko salneurrian saldu ziren, aipatu behar da, onddo hauetatik

gure basoetakoak 20 kilo besterik ez zirela. Gibelurdinak, ziza horiak eta esne gorriak, mahai txiki eta handienetan ere aurki zitezkeen.

Matxakanak, mizpirak, pikua eta urrak gero eta gehiago ikusten ziren. Hauekin batera, azokatik irteten nahi ez duten Ibarrako gindilak, bainak, letxugak, tomateak eta abar aurkitzen ziren atzokoan Tolosako Azokan.

Aste honetako berrikuntza, euro batean saltzen zegoen brokolia izan da, nahiz eta oraindik neurri txikikoa izan.

Aldakuntza garaia beraz azokan, Santu Guztietako lore eskaintza izugarriaren zain.

AZOKA ▶

Berdura plaza merk.	gares.
Landareak	
Begonia	1,20 -
Ziklamena	5,00 -
Xarbota	4,00 6,00
Salbia	1,00 1,20
Bertako produktuak	
Perretxikoeak	
Onddoak	10,00 22,00
Ziza horia	15,00 18,00
Niskaloa	15,00 -
Gibelurdina	15,00 20,00
Kuletroa	35,00 -

Fruta	
Gaztaina	2,50 3,00
Mabakana	5,00 6,00
Urra	3,00 -
Mizpirra	2,50 -
Barazkiak	
Ibarrako piparrak	5,00 6,00
Tomatea	2,50 3,00
Lekak	3,50 4,50
Produktu ekologikoak	
Intxaurra	4,00 6,00
Letxua	0,50 0,70
Kogoihoa	1,00 -
Mermelada	3,00 3,60

iragarki laburrak ▶

LANA
Zaintzailea. Emakumea behar da Tolosan haur bat zaindu eta etxeko lanak egiteko, goizez. Deitu: 943 69 82 73ra.
Sukaldaria. Larunbat gauetarako

sukaldaria nahi nuke. Karta. Tolosaldean. 606 61 52 93.

BESTERIK
Zakurrak. Arraza oneko bi zakur oparitzen ditut. 615 78 96 31.

AGENDA ▶

DEIALDIAK

Tolosa. Aministrariaren Aldeko Mugimenduak antolatuta, etzi, 19:30ean, Benta Haundiko monolitoan, lore eskaintza egingo dute, Joxi eta Joxeanen desagerketaren 24. urteurrenean.

Alegia. Urriaren 21an Nafarroa Oinez 2007ra joateko autobusa antolatuko du Udalak. Izen-ematea, udal bulegoetan, 5 eurotan.

Larraul. Larraulgo lurretik barrena ingurua ezagutzeko mendi ibilaldia, hilaren 28an. Argibide gehiago, 943 69 39 30 telefono zenbakian.

ERAKUSKETAK

Alegia. Rufino de Toro margolariaren lanak daude jubilatuen tabernan ikusgai.

Ibarra. San Bartolome jaietako argazki-erakusketa ikusi ahal izango da Ibararako Benito Izagirre kultur etxean astelehenetik ostiralera, 10:00etatik 13:00etara eta 15:30etik 21:00etara bitarte.

Tolosa. Calcuta Ondoan elkarteak antolatutako erakusketa Errota Haur Liburutegian, 17:00etatik 20:00etara (asteburuetan itxita).

Villabona. Emakume ikusezina erakusketa Villabonako Gurea aretoan, Senegalgo emakumaren paperari buruz.

ZINEMA

Tolosa. *Los cuatro fantasticos y silver surfer* 17:00etan, Leidorren.

Tolosa. *Sigo como Dios* gaur 19:30ean, eta bihar 20:30ean.

GUARDIAKO FARMAZIAK

Gaur
Tolosa. Santamaria, I. Nafarroa Etorbidea, 2. 943 65 46 10.
Lekunberri. Mendia, B. Aralar, 25. 112.

Bihar
Tolosa. Olarreaga, J. Korreo kalea, 2. 943 67 01 28.
Leiza. Campos, M. Elbarren, 52. 112.

▶ HITZA ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.



Auzo bazkaria eta zezenak Berazubiko jaien azken egunean

BERAZUBIKO FESTAK ▶ Atzo Berazubiko jaien azkenurreko eguna izan zen. Festa arratsaldean hasi zen, 16:00etan egin zuten mus txapelketarekin. Ondoren, 17:00etan 3x3 futbito txapelketa jokatu zuten gazteen artean eta iluntzeko 19:00etan tortilla lehiaketa egin zuten. Festak gauean jarraitu zuen, plazako disko festarekin eta goizaldean amaitu zen, 06:00etan egin zuten txokolatadarekin. Gaur goizean herriko dultzaineroak ibiliko dira auzoan zehar. Eguerdian emakumeen arteko auzo-toka egingo dute, 14:00etan babarrun jatea eta 17:00etan zezenak egongo dira zezen plazan. 20:00etan amaituko dira festak, adinekoentzako luntxarekin. A. I.

AGURRAK ▶

Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago ondoko leku hauetako batera. Mila esker.

- ▶ HITZAren egoitza TOLOSAN Araba etorbidea, 5 behea
- ▶ HITZAren egoitza LEITZAN Udaletxeko bulegoa

hitza
 agurren tartea

Urtebetetzeak, urrezko ezteiak, ezkontzak, jaioberriak...



URTE ASKOAN
 Bernarda Mujika (Amezketeta). Bihar 83 urte. Orain arte bezain guapa jarraitu. Etxekoan partetik. Irene eta Ainhoa.